# 6 GAIA
# EKONOMIA SOZIAL (GIZARTE EKONOMIA) eta SOLIDARIOA

GLUE – Gizarte Langintzarako Ekonomia



EKONOMI-JARDUERAREN ANTOLAKETA
MERKATUA
ZUZENDARITZA ZENTRALA
KAPITAL-
-ENPRESAK
MERKATUKO ENPRESA PUBLIKOAK
EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA
ENPRESA MIXTOAK
AUTONOMOAK
EKONOMIA MIXTOA
ESKU HARTZEA / ARAUPENA
GASTU PUBLIKOA
MONETA-
-POLITIKA
ZUZENDARITZA ZENTRALEKO ENPRESA PUBLIKOAK


JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKUNTZA
GIZAKIA / FAMILIA
KONTSUMITZAILEAK
ESTATUA
ESKU-HARTZEA / ARAUAK
GASTU PUBLIKOA
MONETA POLITIKA
ZUZENDARITZA ZENTRALEKO ENPRESA PUBLIKOAK
ERAKUNDEAK (Zuzendaritza)
ENPRESA KAPITALISTAK
MERKATUKO ENPRESA PUBLIKOAK
EKOIZLE AUTONOMOAK
EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA
ENPRESA MIXTOAK
MERKATUA
EKONOMIA MIXTOA

# 6.1. EKONOMIA SOZIALA

# Ongizate Estatuaren krisia…

II mundu gerraz geroztik sorturiko ekonomia mistoek erantzun berriak emateko duten gaitasun ezaren ondorioz, Ekonomia sozialaren goraldia etorri zen. Baina eredu ekonomiko hori ez da berria, jakina. Industri Iraultzatik bertatik sortu zen, kooperatibak eta mutuen bitartez.

(Neo)liberalismoaren ondorioz, argi geratu ziren capital-enpresen eta Estatuaren mugak garapen sozial eta ekonomiko orekatua sustatzeko orduan.

Horrela, kooperatibak, mutualitateak eta, oro har, Gizarte Ekonomia sustatzen da "funtzio ekonomikoa eta soziala integratzeko gai diren enpresen bidez" hau da, "aberastasuna efizientzia ekonomikoz sortu eta ekitatez banatzeko gai direnen enpresen bitartez".

# Gizarte Ekonomia

Eredu arrakastatsuak izan dira kooperatibak eta mutualitateak – bai eta nagusitu ere- hainbat sektoretan:

.. Nekazaritza Kooperatibak (nekazari autonomoak biltzen dituzte eta, askotan, sektore horretan nagusiak izanik)

.. Banku Kooperatiboak / Kreditu Kooperatibak (Frantzia edo Alemanian sektorearen %40-%60 izanik)

.. Aseguruen Mutualitateak

Arrakasta ez da horren hedatua izan beste sektore batzutan:

.. Lan-Kooperatibak (Euskal Herrian oso garatuak)
.. Kontsumo-Kooperatibak

# Gizarte-Ekonomia

"Gizarte Ekonomia" edo "Ekonomia Soziala" kontzeptua sortzearen helburua empresa mota guzti horiek gehiago bisualizatzea da, baterako mugimendu batean elkarturik

Kontzeptu hori asko garatu da herrialde batzuetan eta ez beste batzuetan. Arrakastatsua izan da:

.. Europar Batasuneko erakundeetan
.. Frantzian, Espainian, Portugalen …

Espainian: Ekonomia Sozialeko 5/2011 Legea

- Kooperatibak
- Mutualitateak
- Jarduera ekonomikoa duten Fundazioak
- Jarduera ekonomikoa duten Elkarteak
- Lan-Sozietateak
- …

# Gizarte Ekonomia

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

- Jarduera Ekonomikoa
- Izaera Pribatua
- Jabetza / Titulartasuna ez dago inbertsiogileen eskuetan. Langle, erabiltzaile, hornitzaile, afiliatu, laguntzaileeen eskuetan baizik.

# …eta Ekonomia sozial eta solidarioa

**ORAINDIK ARGITZEN ARI DIREN KONTZEPTUAK DIRA**

- Zer da Gizarte Ekonomia / Ekonomia Soziala
- Zer da Ekonomia Solidarioa
- Zer da Hirugarren Sektorea
- Zer dira “enpresa sozialak”

# Gizarte Ekonomia

**ESTEKA BATZUK**

**MONDRAGON Korporazioa**
**https://www.mondragon-corporation.com/eu/**

**Euskadiko Kooperatiben Federazioa**
**https://www.erkide.coop/index.php?id=eu**

**Euskal Gizarte Ekonomia Sarea**
**https://eges.eus/eu-eges**

# 6.2. EGITURA BERRIAK: EKONOMIA SOLIDARIOA

# Ekonomia Solidarioa definitzen

Ekonomia Solidarioa Ekonomia Sozialaren enborretik dator.

Enpresa-mota ezberdinak dira. Izaera “soziala”, jabetzarekin baino gehiago, jarduerarekin lotzen da, gehienetan legez edo beste arauez zehaztuta.

“Hirugarren Sektorea” / “Hirugarren Sektore Soziala” = Ekonomia Solidarioa (merkatuko jarduera) + GKE/ONG direlakoak (jarduera asistentziala)

# Ekonomia Solidarioa

- Gizarteratze Enpresak, Enplegu Zentru Bereziak, Banku etikoak, Bidezko merkataritza…

- … eta beste hainbat ekimen, hala nola, denbora bankuak, elikadura burujabetza, birziklapen enpresak, moneta sozialak…

- Hirugarren Sektore Soziala Euskadiko Aen:

https://www.sareensarea.eus/eu/

# Ekonomia Solidarioa Euskadiko AEn

REAS Euskadi, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

1997an sortu zen. Gaur egun, 73 empresa eta erakunde biltzen du

https://www.economiasolidaria.org/eu/reas-euskadi

UPV / E.H.U.
UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO

# Gizarteratze enpresas

- Helburua: Pobrezia eta gizarte bazterketaren aurka borrokatzea.

-Enpresa ekimenak dira, empresa logika eta gizarteratze logika batzen dituztenak.

-Nori zuzenduta: gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboei, langabezian daudenak eta ohizko lan merkatuan lana aurkitzeko zailtasunak dituztenak. Besteak beste: drogomenpekotasuna izan duten pertsonak, preso ohiak, epe-luzeko langabetuak, derrigorrezko eskolaratzea amaitua ez duten pertsonak…

UPV / E.H.U.

UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO

# Gizarteratze enpresak

| Helburu diren kolektiboak |
|---|
| |
| • Inserzio errenta minimoak jasotzen duten pertsonak<br>• Oso epe luzeko langabetuak<br>• Langabezian dauden eta derrigorrezko eskolaratzea bukatu ez duten gazteak<br>• Errehabilitazio prozesuan dauden drogomenpekotasuna izan duten pertsonak<br>• Preso-izandakoak langabezian daudenak<br>• Bestelakoak: gutxiengo etnikoak, migranteak, karga familiarrak dutenak eta bazterketa egoeran dauden pertsonak |

# Gizarteratze enpresak

- Gizarteratze enpresetan lan-ibilbide bat eskaintzen zaie, beti ere ohiko lan-merkatuan laneratzeko helburuarekin (ikasteko plataforma gisa dihardute)

- Hortaz, gizarteratze enpresek izaera transitorioa dute.

- *http://www.gizatea.net/eu/*

UPV / E.H.U.
UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO

# Enplegu Zentru Bereziak

- Enpresa hauen xede nagusia ezgaitasunen bat duten pertsonen lana sustatzea da.

- Bideragarritasun ekonomikoa eta merkatuan partehartzea konpromiso sozialarekin batu nahi dute (lan merkatuan aukera gutxien dituzten kolektiboekiko konpromisoa).

http://www.ehlabe.org/eu/ehlabe/

# Enplegu zentru bereziak

| ESKEINTZN DUTE |
| --- |
| Ordaindutako enplegua<br>Formakuntza<br>Bizitza pertsonal eta sozialean laguntza etengabea<br>Enpresa Arruntetarako trantsizioa sustatzen dute |

# Finantza Solidarioak

• Edozein sistema ekonomikok bitarteko eta bitartekari finantzarioak behar ditu.

•Beraz, helburua, eragin sozial positiboa duten proiektuak finantzatzea izango da, horrela proiektu eraldatzaileen finantza beharrak asetuz. Azken batean, finantza bitartekaritza irizpide etiko eta sozialen bitartez egitea.

•Bitartekaritza finantzarioan ekimenak:

- Mailegu solidarioak, eta mikrokreditu kudeaketa

# … FIARE

+ 2003an Euskal Herrian banku etiko proiektu bat gauzatu zen: FIARE (Fundación de Inversión y Ahorro Responsable).

+ Irizpide solidario eta alternatiboak jarraituko duten ekimenak sustatzea du helburu, finantza arloan diharduen kreditu kooperatibaren bitartez.

https://www.fiarebancaetica.coop/eu

# Bidezko merkataritza

- Pertsonen arteko eta herrialdeen arteko merkatal elkartrukeak era ekitatibo eta bidezkoan egiteko ekimenak (egun dauden botere harremanak hautsiz).

- Egungo merkatal harremanen aurrean alternatibak eraiki eta batez ere desabantailan dauden sektoreekin bidezko harremanak sortu.

- Normalean Iparra eta Hegoaldeko erakundeek osatzen dute.

- Bitartekariek beraien margenak murrizten dituzte, ekoizleei mozkin tarte haundiagoa uzteko.

http://comerciojusto.org/

UPV / E.H.U.
UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO

# Enpresa Publikoen Erronka Berria

- Enpresa Handien jabetzari buruzko eztabaida mahai gainera ekartzen ari da berriz ere, bi arrazoiengatik:

- Europa eta AEB-en garapen ereduaren krisia
- Herrialde emerjenteen arrakasta (Txina eta Errusia batez ere)

- GAKOA: Enpresa Handiak interés orokorraren menpe egon behar dira, gobernuen bitartez. Eta ez, alderantziz, gobernuak empresa handien menpe.

UPV / E.H.U.

# Enpresa Publikoen erronka berria

- Eztabaida Berriaren oinarriak:

  - Banku eta empresa estrategikoen titulartasun publikoa
  - Gutxieneko partaidetza publikoak empresa handietan
  - Enpresa handien botere politikoa ezabatzeko beharra (hedabideak, alderdi eta GKE-en finantzazioa, …)
  - Alemaniako “kogestio” ereduaren hedapena, empresa handien jarrera “oligarkikoa” murrizteko tresna gisa

# 6 GAIA
# EKONOMIA SOZIAL (GIZARTE EKONOMIA) eta SOLIDARIOA

GLUE – Gizarte Langintzarako Ekonomia